



Poxta Zahar taldeak urte zaharreko lasterketa berreskuratu zuen, urnietarren erantzun bikainarekin

Ekitaldiz beteriko Gabonak izan dira Andoainen eta Urnietan. Konturatu orduko, gainean dira Inauteriak / 8-11

Euskal kutsuko panpinak

Herrian zabaltzen ari da Ines Medina eta Mailu Arruti andoaindarren sormen-lana / 16

Andoingo Korrika Batzordea osatzeko deia luzatu du AEK euskaltegiak, urtarrilaren 15erako / 14

Bina antezlan iragarrita daude Basteron eta Saroben, datorren hamabostaldian / 14

LARRE-GAIN TOLARE SAGAR DOTEGIA



- Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era bitartean zabalik.
- Bertan egindako sagardoa.
- 150 pertsonentzako lekua eta aparkalekua.
- Igande gauean eta astelehenetan itxita.
- Berezitasuna: Bakailaoa saltsan enkarguz.
- Autobus zerbitzua Hernanitik larunbatetan.



☎ 943 555 846 616 287 867
Ereñotzu auzoa, 58
HERNANI

larregain.sagardotegia@hotmail.com



Andoni Alvarez Lete, Andoaingo alkatea. EHB

"Mugatu gintezke gure gehiengora, baina harago joan nahi dugu"

ANDONI ALVAREZ LETE ANDOAINGO ALKATEA (EH BILDU)

Herri mailako eta Euskaldiko aktualitate politikoari loturiko galdera-sorta erantzun du, 2024ko Udal aurrekontuen prestaketan burubelarri dabilela

Urteko inbertsioak eta agintaldikoak bereizten hasi nahi dut, lehenik eta behin. Zeren eta kiroldegiaren handitzea ez baita 2024an burutuko, baina 2023ko uztailetik lanean ari gara 2027ko udaberriari kiroldegiko lan guztiak amaituta egon daitezzen.

Kiroldegi berriaz ari al zara?

Bigarren pista eraikiko dugu eta horrez gain paddleko pistak, rokodromoa eta zerbitzu gehiago eskainiko ditugu. Hori aurrera egiteko kronograma bat egin dugu, ezin baita dena 2027rako utzi. Udal aurrekontuetan partida bat gordeko da etorkizuneko instalakuntza berrietara bideratzeko. Ildo berean, Zerbitzuetako pabilioi berriarekin eta Udal Liburutegiarekin prozedura beretsua izango da, hiru egitasmo horiek urte anitzeko finantziarioa behar dutelako. Ez dira aipatu nahi ditudan bakarrak. Aparkalekuei dagokionez, daudenak txukundu eta arazoari irtenbidea emateko plana egingo dugu. Beste alorrei erreparatuta, Iztuitza eraikinarekin zer egin erabakitzeke azterketa bat egingo da, eta, bestetik, Olagain aldeko papertegiko lur eremu horretan dagoen kutsadura aztertuko dugu. Igerileku naturala errealitate bilakatu ote daitekeen aztertuko dugu. Irisgarritasunean lanketa egiten ari gara, bestalde, eta aurrekontuan irisgarritasuna bermatzeko partida berriak txertatu ditugu. Etxebizitza plana martxan jarriko dugu Etxebizitzaren Mahaia-aren eskutik eta, herrian, etxebizitza berriak eraikitzeari bultzada eman nahi diogu.

Legegintzaldi planaren aurkezpenean adierazi bezala, Eskola-Kirola egitasmo berriua martxan jarri nahi dugu. Eta zaintza planaren azterketa eta etorkizuneko Emakumeen Etxea irudikatzen hasiko gara. Bestalde, hileta-zibiliei bultzada eman nahi diogu. Bada jendea horren alde dagoena, eta bitartekoak jarri behar ditugula iruditzen zait. Herri baratzek martxan jartzeko asmoa badugu, azkenik, hasiberria den urte honetan.

Jauzi handia al da alkate izatea, Andoni?

Bai. Lan-arloan eta maila pertsonalean. Bietan. Alkate 24 orduz naiz, eta egunero kalean bizi dut jauzi hori. Jendea hurbiltzen zaidalako askotariko kontuekin.

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2024ko Udal aurrekontuak prestatzen ari zarete egun hauetan. Zuen agintaldiko lehen aurrekontuak dira. Zer nolako martxa daramazue? Noizko egon daitezke prest?

Alderdi politikoekin aurkezpen-fasea Gabonetan egin dugu. Data zehatza jartzea baino, alderdiek ekarpenak egiteko aukera izatea nahi dugu. Eta, horretarako, denbora gehiago behar baldin badute, prest gaude denbora hori eskaintzeko. Alderdiek ekarpenak egiteko aukera egitea eta eroso sentitzea lehenesten dugu.

Ulertzen dut, gehiengo osoa ziurtatuta duzuen arren, oposizioko alderdien babesa edo abstentzia lortu nahi duzuela.

Elkarrekin Podemos alderdiarekin oinarria adostu genuen. Gure nahia, gehiengoa eduki arren, ahalik eta babes gehiena lortzea da. Mugatu gintezke gure gehiengora, baina harago joan nahi dugu.

2024an sartu berritan, zer aurrikusi daitezke? Zein ekimen zehatz aipa daitezke?

Amaitu berri den 2023ko uztailean hasi zen agintaldia eta, gutxi-asko, alderdi politikoak rol jakinak hartzen ari dira. Oposizioak prozedura mailako kritikak egin ditu denbora tarte honetan. Hainbat gauza ez direla zuzen egin iradokitzen ari dira. Zenbat denbora behar du gobernu taldeak martxa bete jartzeko?

Kasuan kasuko azterketa egin beharko genuke. Gertatu baita maila teknikoan nahiz politikoan, bietan, kide berriak denbora tarte berean hasi direla lanean. Arlo tekniko eta politikoa berria den kasuetan, noski, denbora gehiago behar da. Beste arlo batzuetan esango nuke dinamika onean goazela. Egoera ezberdinak daude, sailez sail aztertuta.

Uste dut gure lantaldea lanean ari dela, burubelarra ari dela lanean. Akatsak egin ditugu, eta egingo ditugu. Akatsak egiten ditugunean, onartu beharko ditugu eta gehiago gerta ez daitezen oinarriak jarri beharko dira. Nolanahi ere, gurea martxan dagoen lantaldea dela esango nuke.

Partaidetzako aurrekontuen hiru-garren fasea amaitu berri da. Denbora tarte txikiagoan, lortutako emaitzak aurreko bi urteetakoak baino askoz hobekak izan dira. PSE-EE kritikoa agertu da aukeratutako hiru egitasmoak bere horretan ez direla gauzatuko ondorioztatu duela.

Bekoplaza eraberritzeko azterketa bat egin behar da, lehenik eta behin. Zer nolakoa egin behar da? Zein aukera daude? Azterketa bat egin beharko da. Basteroko eserlekuen kasuan, herritarren botoei esker, aldatzeko proposamena aurrera ateratu da. Nola egingo dugu, eserleku handiagoak aukeratzu eta ondorioz aforoa murriztu ala daudenak kendu eta tamaina bereko berriak jarri? Aldatu aurretik aztertu beharko da. Aurretiazko lana egin behar da. Eserlekuak aldatuko ditugu, baina pauso guztiak behar bezala eman eta gero.

EAJ-PNVrekin harreman ona duzuela esan daiteke? Kritiko baina

"GEROZ ETA JENDE GEHIAGOREN KONFIANTZA BEREGANATZEN DU EH BILDU-K"

eraikitzaile agertzen direla diote eurek.

Alderdi guztiei eskua luzatu gero, hona sartu eta berehala. Gehiago osoa nahiko bermatuta dago, baina hortik harago joan nahi dugu. Andoain guztion artean egin nahi dugu. Eskua luzatu dugu eta, horren ondorioz, jeltzaleek eta sozialistek modu ezberdinean erantzun dute. Jeltzaleek jarrera kritikoa dute, bai, baina proposamen eraikitzaileak egiten dituzte. Sozialistek, gaur gaurkoz, jarrera kritikoa hutsa dutela erakutsi dute. Gure gonbita argia da. Esan bezala, eskua luzatu diegu denei. Eta, noski, zilegi da alderdi bakoitzak bere jokabide propioa erakustea.

Elkarrekin Podemos alderdiarekin Etxebizitzaren Mahaia jarri duzue martxan. Kaleratzeak Stop mugimenduak parte-hartze aktiboa erakutsi du. Berriki, Beterrri-Buruntza osoa tentsio handiko bizitegi-eremu izendatzeko baldintzak betetzen dituela ondorioztatu du Etxebizitzaren Euskal Behatokiak. Hasteko eta behin, Elkarrekin Podemos alderdiarekin inbestidura-akordioa sinatu genuen. Legealdirako lehentasunezko akordioak lotuko ditugu, akordio horren bitartez. Horren baitan adostu genuen Etxebizitza Mahaia martxan jartzea. Mahai horren gidaritzan Elkarrekin Podemoseko Pepe Iparragirre zinegotziari dagokio. Pleno bidez eskatu dugu Andoain tentsio handiko bizitegi-eremu izendatzea. Prozedura bat martxan jarriko da.

Politika orokorrera jauzi eginez. Urte hasiera interesgarria datorkigu. Lehendakaritzarako hauteskundeetan aurrean EH Bildu inoiz baino indartsuago dagoela diotezenbait ikerketa soziologikok. Nola baloratzen duzu zuk goranzko joera hori?

Haziz doa EH Bildu. Udalerri mailan, oro har, asmatu izan du alkatetzan egon denean. Eta, orain, alderdi municipalista izatetik udalaz gaindiko erakundeetarako hautagai irmoa izatera pasa da. Aldundira eta Eusko Legebiltzarrerara begira, EH Bilduren aldeko joera goranzkoa da. Foru Hauteskundeetan EH Bilduk nabarmen irabazi zuen. Aldundian gertatu bezala, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan ere gauza bera gerta daiteke. Geroz eta jende gehiagoren konfiantza bereganatzen duen alderdia gara. Uda-

berrian oso emaitza ona lortuko dugulakoan nago.

Bitxia da, zeren eta EAJ-PNVko Pradales eta EH Bilduko Otxandiano hautagaiak, biak ala biak, ez dira oso ezagunak Gipuzkoatik begiratuta. Otxandiano nola definituko zenuke?

Lehenik eta behin, esan behar dut Pradales eta Otxandiano ezagutzeko aukera izan nuela "Herrigintzaren berrikuntzan" izeneko masterra egin nuenean.

Pello Otxandiano kanpora begira, ez da ezaguna, baina EH Bilduren barnean, estrategian lemazain izan da azken urteotan. Gaitasun handiko pertsona da, ikasketa maila eta jakinduria handikoa. EH Bilduk hautagai ezberdinak zituen, baina maila pertsonalean ezagutzen dut eta prestatuta dagoela ziurtatu dezaket. Hautagairik onena bera da.

Esango nuke Andoainen EH Bilduk, beste bi alderdi nagusiek ez bezala, jakin duela belaunaldi ezberdineko kideekin uztartzen eta lan pribatua nahiz publikoa elkarrekin egiten.

Udalak gidatu izanak esperientzia ematen dizu, eta guk behar ditugu aurrekoen aholkuak, Udal Gobernu taldetik harago doan alderdia da EH Bildu. Alor ezberdinei erantzuteko mahaia osatu ditugu. Gizarte Zerbitzuetakoa, Hirigintzakoa, Berdintasuneko... Bertan, EH Bilduko kide ezberdinek parte hartzen dute. Garai batean zinegotzi edo alkate izandakoak, eta baita herritar soilak direnak ere. Gure indarguneetako lantalde horietan dagoela esango nuke.

Zertan da aurreko urtean zeresan handia eman zuen errepide-sareari loturiko afera?

N1 eta A15 lotunearekin Andoainen dugun arazoa ezaguna da. Zarata eta kutsadura-azterketak egiten ari gara. Iaz, Espainiako aurrekontuetatik 476.000 euro lortu ziren eta partida horrekin 2011ko egitasmoan oinarritutako alternatiba garatuko da. Aipatu genuen bezala, auziari loturiko mahaia martxan jarri dugu. Sorabilla Auzo Elkarteak, C2ak kalteetakoaren plataforma, udalean ordezkariak duten alderdi politikoak eta teknikariak parte hartzen ari dira bilera horietan. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bilera berria aurreikusten ari gara. Sukalde-lanean ari gara, eta uda honetarako alternatiba mahaigaineratzea espero dugu.

Politika alorreko elkarrizketak



Gonzalez. AIURRI



Goenaga. EAJ-PNV

HERME GONZALEZ (PSE-EE)

Elkarrizketa-sortako lehena izan zen, Pedro Sanchezen inbestidura-saioaren atarian. Alderdi abertzaleen lankidetzaz ezinbestekoa izan zen sozialistak Espainiako boterea eskura zezaten.

IMANOL GOENAGA (EAJ-PNV)

Aldaketa garaia bizi du alderdi jeltzaleak. Zehatzago esanda, eraldaketarena. Lehendakari-gai berria aurkeztu berrikan, Goenagak Andoain eta EAE mailako gakoak eskaini zituen.

arruti pasteleria

gazotzologia

Etxeko obradorea Enkarguak jasotzen ditugu

Egunean Behin 14D denboraldi berriko babeslea

Babeslea: **egunean behin**

Zumea 18, ANDOAIN

943 593 777

KOMIKIA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



GORA ETA BEHERA



Mozorro festa

Poxta Zahar Urnietako gazteen elkarteko kideek urte zaharreko lasterketa berreskuratu zuten, eta hori bera izan da Gabonetako ezusteko atsegina. Jendetzak parte hartu zuen, eta gehien-gehienak mozorrotuta. Zorionak, Urnieta, eta zorionak, Poxta Zahar!



AIURRI

SAREETAN IKUSIENA

AIURRI.EUS WEBGUNEAN

Iñistorrako euskaltzaleen adierazpena

2023ko abenduaren 21ean, plenoaren amaieran, Jon Unanue Iñistorrako ordezkariak adierazitakoak zabalkunde handia izan zuen internet sarean. Ikustaldi ugari izan zituen bere adierazpenak jasotzen zituen bideoak. Plenoan ziren Udal ordezkariak zuzendu zitzaizkien, galde-erreguen tartean, gobernu taldeko kideek Aiurri astekariaren partida 10.000 eurotan jaistea erabaki ostean. "Gaurkoa egun tristea da Urnietako euskaltzaleontzat", horrela laburbildu daiteke bere hitzartzea. Lehenago, dozenaka herritarrek kontzentrazioa egin zuten San Juan plazan. Unanue Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarreko sortzaileetakoa da, eta 2004an bera izan zen Aiurri astekariaren sustatzaile nagusietakoa. Ez zutela etsiko iragarri zuten: "Aurrera egiteko laguntza eguneratua behar dugu, eta hori da Udalarik eskatzen jarraitzen dioguna eta urtea hastearrekin batera eskatuko dioguna".



AIURRI

GORA ETA BEHERA



AIURRI



Urnietako panpintxoak Andoaingo Ama Kandida etorbideko jaiotza erraldoian

Hanbell almatzenak ziren biltegiaren eta Orbelan fabrikaren artean, errepidera itsatsita dagoen etxearen atzealdeko belarditxoan,

jaiotza erraldoia ikusgai jarri zuen Iñaki Blancok. Tamainaz, handi-handia, Maxi Mazon urnietarrak utzitako dozenaka piezez osaturik

zegoen. Eta, gainera, ur sistema jarri zion ibaiak sinesgarritasun handiagoa izan zezan. Herritarrek ezagutzeko aukera izan dute.

2024an sartuta, hogeit urteko ibilbidea osatzear da Aiurri astekaria

2004ko udazkenaz geroztik, tokiko informazioan, bide oparoa egiten ari da Andoain eta Urnieta udalerrietan Aiurri Beterri-Buruntzako astekaria. Paperezko edizioaz gain, webgunean eta hainbat sare sozialetan zabalkunde handia izaten ari da

Erredakzioa URNIETA

2004ko martxoaren 1an, estrai-nekoz, egunkari itxurako Aiurri izeneko astekaria banatu zen Urnietan. Bazuen atal bat, aurkezpen modukoa zena. Zer duzu esku artean goiburuean, egitasmoa aurkeztu zitzaion urnietarrei: "Aiurri izeneko astekaria da esku artean duzuna, irakurle, Urnietan astero-astero EUSKARA HUTSEZ argitaratzen hasi nahi dugun egunkari formatoko astekaria, gure herriei buruzko eguneroko informazioa bizi-bizi eta euskaraz, behar adina, eskaini nahi dizugulako. Andoainen duela hamar urtetik hona argitaratzen dugun Aiurri hamaboskaria osatzera eta indartzera datorren argitalpena da hau". Hogeit urte betetzear dira, geroztik. Asmoa, hein handi batean, bete dela esan daiteke. Aiurri astekaria erreferentziatzeko hedabide bilakatu da Andoaingo eta Urnietako biztanleriarentzat. Orduko hartan, ez genuen irudikatzen Internet-ek halako indarra hartuko zuenik. Bada, paperean ez ezik, digitalean ere ibilbide oparoa betetzen ari da Aiurri. 365 egunez berritzen



Aiurri.eus guneko Urnieta ataleko albiste-sorta. AIURRI

den webguneaz gain, jarraitzaile ugari ditu Aiurri sare sozialetan (Instagram, Facebook, Twitter, Telegram eta TikTok). Eguneroko martxari eusten dion erredakzio-taldeak du ardura nagusia, Andoaingo eta Urnietako laguntzaile askoren ekarpenarekin batera. Bazuen 2004ko lehen astekari hark beste ataltxoa, *Zertaz jardungo du* izenekoa. Orduko hartan adierazitakoari eustea, paperean eta digitalean, ez da lorpen txikia izan: "Aiurri astekariak aste osoan Andoainen eta Urnietan gertatutako berri

emango du. Egunean egunekoari jarraitzen ahaleginduko dira Aiurriko kazetariak, gure herrietako taupada informatiboa eusten asteburuan irakurri ahal izango duzuen astekaria osatzeko". Bidea egiten jarraitu nahi du Aiurri.

2004AN ANDOAINEN ETA URNIETAN HASITAKO BIDEAN JARRAITU NAHI DU AIURRI ASTEKARIAK

Hemeroteka



JON UNANUE
IÑISTORRA,
URNIETA

2004ko martxo:

Badira Gipuzkoan Urnietaren tamainako herriak euskara hutsezko aldizkaririk ez dutenak. Urnieta bakarrenetakoa da. Duela urte askodanik hona, herri gehienek ikusi dute bere altzoan euskara hutsezko aldizkariren bat jalotzen, gure kioskoetan gaztelerak duen nagusitasunari aurre egin nahian. Urnietak denbora asko behar izan du pauso hori emateko. Hainbeste denbora behar izateak ez nau harritzen. Euskaraz bizi beharra ez da Urnietako kaleetan sumatzen dudana premia. Zalantza izpirik gabe, urnietarrentzat gaztelerak da hizkuntza nagusi eta gehien-gehienek gogokoen dutena. Oker ote nabil?

Iñistorra Euskaltzaleen Biltzarra sortu dugu Urnietan, esku artean duzun orri sorta hau astero-astero argitaratu ematekotan. Sorrera horretara ere ez da urnietar tropelik etorri, dozena bat baino ez, baina aurrera egitea erabaki genuen.

Euskara hutsez izango da, eta hori izango da benetan euskaraz bizi nahi dugunontzat Urnietan bertan emango dugun lehenengo urratsa.

Gazteleraz bizi nahi duzuenok, egon lasai!, aukerarik ez zaizue faltako-eta Urnietan beste larehun urtez nahi bezala gazteleraz bizitzeko... Euskaltzaleok, berriz, astekari hau aurrera ateratzeko hamabi lagun elkartzearekin konforme izan beharko dugu, eta hortik aurrera hamaika lan izango dugu.

Iñistorra ugari basomendietan, Urnietako kalean behintzat ez dirudi erraz heltzen dionik!

¡Que se te va la olla, Unanue!, entzungo diot orain baten bati...



Sinadura-kanpaina abiatu dute Urnietan

Herriko hamazazpi talde eragilek Aiurri astekariaren aldeko sustengu-taldea osatu dute

Erredakzioa URNIETA

Abenduko Udal batzarraldian gobernu taldea osatzen duten jeltzaleek eta sozialistek 2024ko aurrekontuen onarpenari bide eman zioten. Horren ondorioz, hamar mila euroko murrizketa pairatu du Andoaingo eta Urnietako Aiurri. Urnietan, erabaki horrek berehalako erreakzioa sortu du, eta herri-eragileak taldean hasi dira lanean. Sustengu-taldea osatu dute, eta Urnietako gizarte eta kultur bizitza aberastera datozen 17 taldek sinadura bilketa abiaraziko dutela iragarri dute.

Sinadurak biltzeko mahaia

Urtarrilak 12 eta 19, Zaldundegi plazan, 19:00etatik 21:00etara. Urtarrilak 13 eta 20, toki berean, 12:00etatik 13:30etara. Urtarrilak 14 eta 21, San Joan plazan, 11:30etatik 13:30etara. Era berean, sinatzeko orriak jarriko dituzte merkatalgune eta tabernetan.

Babesa adierazi zuten eragileak

AEK, Bagara emakume feministak, Bertso eskola, Egape Dantza Taldea, Elkartasuna Ekimena, Etxeberrri auzo elkatea, Iñistorra Euskaltzaleak, Manttala kultur elkarte, Onbizi, Poxta Zahar, Sorginak taldea, SurperH, Txanbolin, UKE, Urnietako Mugimendu Sozialista, Xoxokako auzo elkarte eta Zanpatuz.

Aiurri indartzeko eta iraunarazteko harpidetza-kanpaina



HARPIDEDUN GEHIAGOREN BEHARRA DUGU

Izan zaitetz harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain Aiurri iraunarazteko ezinbesteko laguntza eskainiko duzu.

Harpidetza-orria on line betetzeko aukera: aiurri.eus/bazkidetu/



lazko azaroaz gerotik, KORRIKako koordinatzaile orokorra da Ane Elordi. GOIENA

“Bada momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko”

ANE ELORDI KORRIKAKO KOORDINATZAILEA

Martxoaren 14an abiatuko da KORRIKA, Irundik, eta martxoaren 24an iritsiko da Baionara. Hamaika egun euskararen alde korrika, eta, poliki-poliki, ari dira xehetasunak ezagutzen

Goiena TOKIKOM

Aurkeztu dute 23. edizioaren ibilbidea; aurtengo edizioari buruz gehiago jakiteko, KORRIKAREN koordinatzaile Ane Elordi elkarrizketatu du TOKIKOMek. **Duela urtebete pasatxotik zaitugu KORRIKAREN koordinatzaile, 2013a ezker kargu horretan egondako Asier Amondori lekukoa hartuta; zer moduz?**

Ondo. KORRIKA arduraduna izatea izugarriko ardura da. Nik beti esaten dut bakarrik ez dela egiten lan hau. Talde handi baten laguntza jasotzen dut eta egunerokotasunean taldean aritzen gara. Apurka-apurka, bagoaz edizioa prestatzen. **2022ko azarotik egiteko horretan, baina 2015a ezker zabilta AEKn eta KORRIKA bera ere ezagutzen duzu.**

Bai. Hasiara batean, AEK-ko kide guztion moduan, KORRIKA antolaketetan parte hartzen dugu; lehenengo, eskualde mailan, bakoitzari dagokionetan. Gero, eduki dut aukera 21. KORRIKAN furgoneta-taldeetako kide izateko eta Euskal Herri osoa zeharkatzeko KORRIKAREkin batera. 22. edizioan prentsa-taldeko kide izan nintzen. Beraz, badira KO-

RRIKA bera bizi izateko hainbat modu.

KORRIKA... nola definituko zenuke? KORRIKA zerbait bada, nire ustez, emozio-jai bat da, baina ezin dugu ahaztu, sarri, jai horretan gelditzen garela eta oso presente eduki behar dugula aldarrikapenerako ekimena dela. Euskararen inguruan antolatzen den Euskal Herriko ekimenik erraldoiena da. Gizarte osoa mugiarazten du eta muga bakarra hizkuntza bera da. Orduan, oso ekimen potentea da.

Zu zeu egitasmoaren gidari zarela egingo den lehen KORRIKA izango da; 2024koan zertan igarriko da gidaritza aldaketa hori?

Bakoitzak bere aletxoak jartzen dio. Lehen esan dudan moduan, nik taldeari garrantzi handia ematen diot. Azkenengo ikasturtean askotariko hausnarketak eraman ditugu aurrera. Euskara da guretzat erdigunea, baina badakigu Harro herri eta euskararen Harro herri hori sortzeko beste arlo batzuetan ere eragina eduki behar dugula. Esaterako, gizarte erantzukizuna landu izan dugu, aztarna ekologikoa ere bai... KORRIKAK arropak ateratzen ditu, eta arropa horiek nondik datozen azterketa egin dugu; saiatu gara hurbiltzen materialetan ere berrikuntzak sartzen. Ez da erraza. Ezin dugu ahaztu KORRIKAK bi helburu dituela: bata, euskararen kontzientziazioan suspertzea; eta bestea, AEKrentzat baliabide ekonomikoak batzea. Orduan, oreka hori mantenduta pauso txikiak egiten aurrera goaz. Euskarriari dagokionez, KORRIKA hurbildu ahala Euskal Herri osoa apaintzeko ardura hartzen dugu AEK-ko kideok, baina apainketa hori, sarri, plastikoz janztea dela iruditu izan zaigu. Orduan, horri aurre egiteko, materialak eta beste modu bateko apainketa batzuk sustatzen gabiltza.

Horiek guztiek eta aurreko edizioak izandako dimentsioa kontuan izanik, ez duzue erronka makala aurretik.

Azkenengo edizioan, batez ere, kilometroz kilometro jendetza egon zen. Harrera oso beroa izan zen, baina Donostiako bukaera izugarria izan zen. Orduan, orain arte, azaroaren 16an aurkeztu genuenetik harrera ere oso ona izan da eta aurreikusten dugu bide beretik joango dela 23. edizioa.

Eta nola hartu tamaina? Nola egin patxadazko antolaketa bat? Nola ari zarete?

Ez da erraza, baina bagabiltza. Eguneroko lana da. Batzuek duela gutxi Gabonetako oporrak izango zituzten. Gu, beste martxa baten, baina lanean ibili gara, eta apurka-apurka. Bada gustura egiten den lan bat, eta, behin KORRIKA amaituta, orduan hartuko dugu atseden.

Harro herri lelopean egingo da; azaldu iezaguzu hitz pare horren ideia.

Batetik, azpimarratu nahi izan dugu badela momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko. Harro, baina ez konforme. Aldi berean, lehen esan dut KORRIKA aldarrikapenerako egitasmoa dela, eta ezin dugu ahaztu azaroaren 4an Kontseiluak deitutako manifestaldi hartan bildutako jende guztia. Hori da, gure ustez, badagoela gogo bat euskaraz Harro herri sortzeko. Orduan, gutako bakoitza nahiz eta ezberdina izan, bakoitzak bere iritzia, pentsaera eta jokaerak izango ditu, baina hizkuntza berak batuko gaitu. Euskaraz batuta sortuko dugu komunitatea Harro herri. **Aurtengo omendua: Azterketak Euskaraz kolektiboa. Baxoa –Frantziako Estatuan goi-mailako ikasketak egin ahal izateko ezinbestean eskuratu behar den titulua– eta Brebeta –Frantziako Gobernuak 14-15 urteko ikasleei euren kolegioko eskolaratzea gainditu dutela ziurtatzeko ematen dien diploma–; bi azterketa horiek euskaraz egiteko borrokan dabilzan ikasleak omenduko dituzue.**

Sarri, iruditzen zaigu hegoaldean Azterketak Euskaraz kolektiboaren borroka hori ez dela askorik ikusten edo ez dela ezagutzen. Orduan, 23. edizioan iruditu zaigu momentu ona dela eurei aitortza egiteko, badelako borroka luze bat. 25 urte edo gehiago izango dira hasierako ikasle haiek planto egiten hasi zirenetik, hizkuntza eskubideen aldeko aldarrikapenen borrokan hasi zirenetik. Eta 25 urte haue-tan, batetik, belauldiz belauldaldi egindako transmisio bat izan da eta lortu dituzte proba batzuk euskaraz egitea. Azken hilabeteetan atzerapausoa ere eman da, ez dituztelako galderak euskaraz jasoko, baina ikusten dugu lanean ari direla, eta horregatik aitortu nahi izan dugu egunerokotasunean egiten duten

borroka hori. Gainera, erdigunean jartzen diren egitasmoaren sustatzaileak ikasleak dira, momentu honetan direnak edo izan direnak. Inguruan badituzte irakasleak, Seaskaren inguruan mugitzen diren gainontzeko ki-deak eta gurasoak. Baina gazetxo horiek izatea egitasmoaren bultzatzaile oso interesgarria iruditzen zaigu.

Garrantzitsua izaten da kantua, ekimenaren bidelagun izaten delako eta jende askorengana heltzen delako. Aurtengoa Maite Arroita-jaregi Mursego musikariak ondu du; eta bideoklipa, berriz, Amaia Badiolak.

KORRIKA batzordean aukeratu genuen Mursego izatea kantaren egilea, eta jakin genuen zerbait berezia izango zela. Emaitza ikustearekin batera, pozarren. Uste dugu zenbat eta gehiago entzun orduan eta gehiago gustatuko den kantua dela, eta KORRIKA egiteko primerakoa.

23. edizioa izango da aurtengoa; martxoaren 14tik 24ra egingo da, Irundik Baionara. Zergatik aukeratu dituzue toki horiek ekimena abiatu eta helmugaratzeko?

Guk AEK barruan irizpide batzuk ditugu. Azkenengoa Donostian amaitu zenez, herrialde horretako herri batetik abiatzea da irizpideetako bat. Gipuzkoak Irun proposatu zuen. Zergatik Irun? KORRIKA jarraitzaileak bagara, azkenengo hasierak izan dira herri txiki, arnagune eta halakoetan. Baditugu Amurrio, Otxandio, Urepel... Bat-batean Irun. Irun bada Gipuzkoako bigarren herririk populatuena, eta, aldi berean, Gipuzkoak badauka ezaugarritzat arnagune izatea Euskal Herri mailan, baina arnagune horren barruan dena ez da urre. Horren adierazle izan daiteke Irun. Irungo kideek proposatu zuten bertan hastea, eta egokia iruditu zitzaigun. Batetik, badelako modu bat KORRIKA hasiera bertako euskalgintza indartzeko. Guk azaroaren 16an nazio mailako aurkezpena egin genuen. Aste hartako zapatuan Irungo euskalgintzak deialdia egin zuen eta jendearen harrera eta erantzuna oso ona izan zen.

"AZKENENGO EDIZIOAN, KILOMETROZ KILOMETRO JENDETZA EGON ZEN"



Aurreikuspen onak egin ditu Elordik, edizio berria hasteko gutxi falta denean. GOIENA

Ordutik, badabilta lehen eguneko egitaraua antolatzen herri mailako eragileekin, eta ematen du euskalgintza berpizten ari dela. Orduan, oso egokia iruditzen zaigu.

Helmuga, Baiona.

Jakingo duzuen moduan, hurrenkeran tartekatzen dira hiriburuak, eta aurtengoa Baionari tokatu zaio.

Ezagutu berri dugu aurtengo ibilbidea. Herri guztietatik pasatzea ez da posible, baina, kasu horretan ere, zein irizpide hartzen dituzue kontuan Korrikaren mapa osatzeko?

Korrika aurkeztu den bakoitzean, jendea ibilbidearen zain egoten da. Guk nazio mailako irizpideak ditugu eta saiatzen gara ahalik eta herri gehienetatik igarotzen; gutxi gorabehera, 210 herri igaroko ditu Korrikak. Badira irizpide batzuk bai ala bai bete beharrekoak edizio oro. Hori bada herrialde guztiak

zapaltzea eta AEKren euskaltegia dagoen herrietatik pasatzea. Horrez gain, saiatzen gara, gutxienez, herrialde bakoitzeko eskualde guztiei keinutxoak egiten. Batzuetan, zeharkatu; beste batzuetan, ukitutxo bat. Badaude hainbat toki iristeko ez direnak hain errazak; bertaraino joan eta buelta egin behar dena. Eta zailtasuna badauka ibilbidea osatzeak.

Horiek ere aintzat hartzen dituzue eta edizio bakoitzean begiratzen duzue aurrekoan nondik ez zen pasa.

Ibilbide bera ez da izaten inoiz. Gainera, hasierak eta amaierak

"EDIZIO BERRIENA AURKEZTU GENUENETIK JASO DUGUN HARRERA OSO ONA IZAN DA"

ere markatzen dute. Beti kontuan izaten da aurrekoan nondik ez ginen pasa edo noiz pasa ginen azkenengoz. Badira leku batzuk lau urtetik behin ikusten dutenak euren herrian Korrika. Horrelakoak ere kontuan izaten dira. Eskualdez eskualde jasotzen dira lehentasunak, eta gero, horien guztien artean aukeratu da zer den posible eta zer utzi behar den hurrengo ediziorako. **Aurtengoari dagokionez, zer nabarmenduko zenuke?**

Aurtengoa Irundik abiatuko da eta Hondarribiraino joango da. Adibidez, hor joan-etorria, ez dago aukera askorik. Eta gero, Ipar Euskal Herria sartuko da. Zeharkatuko du Ipar Euskal Herri osoa eta Zuberoatik Nafarroara joango da. Azken edizioetako joera bada Erribera inguruan asteburu egitea. Gainera, Euskal Herriko talde, elkarte eta lagun asko batzen dira inguru horretan Korrikaz gozatzeko. Badelako beste modu bat norberaren herrian bai baina beste leku batzuetara hurbiltzea. Gero, pixkanaka gorantz joango da: Araba, Gipuzkoa, Bizkai... Nabarmentzekoa, adibidez: aspaldi, Durangaldean Mañaritik ez da igaro, eta gero, Urkiolan gora igo beharko da mendatea. Elantxobe ere bai. Orduan, horrelako keinutxoak egin dira.

Tokatuko da zenbait kasutan –Urnietaren kasua ere hori da– behin pasatu beharrean birritan pasatzea. Beterri-Buruntzak hainbat sarrera eta irteera ditu, eta bi egunez gozatzeko aukera egongo da Urnietan.

Eskuz esku eta kilometroz kilometro lekukoa ematen dute korrikalariak eta euskaldun ezagun baten idatzitako mezua gordetzen da barruan. Hori sorpresa izango da, noski. Amaiera ekitaldian zabalduko da bertan idatzitakoa lau haitzetara, baina zer da mezua horren bitartez bilatu nahi izaten dena?

Lekukoak barruan ematen duen mezua berezia da. Gainera, sortzen da halako emozio-intriga hori behin lekuko barruan sartzen denean ea nork idatzi duen. Kinielak egiten dira lagunartean. Guk bilatzen dugu Korrika edizio osoa biribiltzea. Sarri, jendartearen esaten dugu martxoaren 14tik 24ra dela Korrika, baina gu azaroaren 16an Korrika aurkeztetik geroztik, bitartean eskaintza kulturala itzela izanda, Korrika beka daukagu, kantua ateratzen da, dokumentala

aurkeztuko da... Hori guztia ere bada Korrika guretzat. Guk sei hilabeteko ziklo moduan bizidugu, eta hori guztia biribiltzeko pastelaren goiko txokolatetxoa dela esan daiteke. Eta edizioak berak duen mezua eta leloa bobobiltzeko pertsona batek idatzitako mezua da.

Baionan argituko da hori; han egingo da azken festa handi hori. Horri buruz ezer aurreratzeko moduan zaude?

Prestaketa lanetan gabiltza. Hango kideak ari dira burubelarri. Espero dugu Donostia bete zen bezala Baiona ere betetzea, eta ziur eskaintza ere oso zabala izango dela.

Aipatu berri duzu. Ordura arte izango dira hamaika ekitaldi, badiharduzelako motorrak berotzen ekitaldi handi horri begira. Aurten, ekitaldi nagusia kultur sorkuntzarako bekaren bitartez taxututako Badon opera garaikidea izango da. Joan den abenduaren 1ean estreinatu zen, Gasteizen. Zer da eta zer moduzko harrera izan du?

Uste dut harrera oso ona izan duela, oso berezia delako. Ez da horrelakorik ikusi Euskal Herrian eta euskaraz orain arte. Nik neuk ez daukat hitz bakar bat azaltzeko. Bada kantua, bada musika, ikus-entzunezkoa, antzerkia, bakarrizketak... Dena elkarrekin, eta aukera asko daude Euskal Herrian, hamabost ikuskizunetik gora aurrerantzean ere. Aukera izanez gero, nik gonbita egiten dut denok ikusteko.

Parte hartzeko moduei dagokionez, nola parte hartu daiteke Korrikan?

Eskaintza kulturala izugarria da. Kilometroak eskuratu eta korrika egitea izan daiteke modu bat, espaloitik txalo egin eta animatzea... Gure webgunean horiek guztiak bilduta daude. Arropak ere atera dira, ekarpen ekonomikoa egiteko moduak asko dira: Korrika laguntzaile bihurtu, herriz herri antolatzen diren batzordeetan antolaketa lanetan aritzeko. Sarri AEK-k kideon esku geratzen den lana da, baina Korrika batzordeak ia herri guztietan sortzen dira. Aukerak, milaka.

"AURREIKUSTEN DUGU AURREKO BIDE BERETIK JOANGO DELA KORRIKAREN 23. EDIZIOA"



Andoaingo Udai Musika Eskolako abesbatzen Gabonetako emanaldi berezia, Kaletxikiko kaperan. AIURRI

Ekitaldiz beteriko oporralida

Hamabost eguneko denbora-tartean, hamaika hitzordu antolatzeko aukera izan da. Tradiziozkoak izan dira gehienak, Gabonetan ohitura zahar asko biziberritzen baitira. Egitarau osoa gauzatu da, eguraldiak ekitaldiren bat edo beste baldintzatu arren

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Abenduaren 21ean hasi eta urtarrilaren 6ra bitarte hitzordu ugari izan da Andoainean. Gabonetako ekitaldi bereziak izan dira, gehien-gehienak. Jende gehien erakarri zutenak abenduaren 24koa eta urtarrilaren 5ekoa izan baziren ere, badira aipamen berezia merezi duten beste hitzordu gehiago. Jarduera fisikoei dagokionez, Lasterka Itzuli urte zaharreko lasterketa ospakizun bilakatu zen. Kirol mailan, Euskaldunaren futbol kanpusa eta Leizaran eskubalo

taldeak antolatutako txapelketak eta saio bereziak ere nabarmendu behar dira. Trebaketa saioei dagokionez, Zumea kaleko Nutrieskolak antolatzen dituen sukaldaritza-tailerrak arrakasta handia izan ohi du. Salkinek ere bere aletxoak jarri zuen, eta udalerrria zeharkatu zuen Txu-txu trenak familia askoren arreta bereganatu zuen. Haurren artean arrakasta handia izan duen beste hitzordua Gabonetako Haur Parkea izan da. Urtarrilaren 2an eta 3an, bereziki arratsaldeko tartean, jendetza ibili zen.

Herriko kultur taldeei dagokionez, Lebiton konpartsak erakusketa antolatu zuen Basteron. Berezia izan zen Basajaun eta Mari erraldoiak ahanzturatik atera eta eraberrituta aurkeztu zituztelako. Punttuka bertso eskolak eta Maizorri txapalarta taldeak antolatutako bertso-poteoa, bestalde, atsegina eta dibertigarria izan zen. Zeresan handia izan zuten horretan Agirre eta Akizu bertsolariak.

Gabonak, bestalde, kantuan aritzeko aukera aproposa da. Eskaintza zabala izan da aurten.



Udai Musika Eskolako gaztetxoek emanaldia Bastero Kulturgunean. AIURRI



Aspaldiko erraldoiak berreskuratu zituen Lebiton konpartsak eta ikusgai jarri zituen Basteron. AIURRI



Mari Domingi eta Olentzero, Kale Nagusian. AIURRI



Txu-txu tren, Goikoplazan. AIURRI



Gabonetako Haur Parkea, Allurralden. AIURRI



Olagain txistularien Gabonetako emanaldi berezia, gonbidatuekin. AIURRI



Bertsozale gazteak Maizorriko kideen ondoan, Gabonetako bertso-poteoan. AIURRI



Gaspar erregea eta haren laguntzailea, Allurralde kiroldegian. AIURRI



Aiurri astekaria eskuan, Sanferminetako entzierroa irudikatu zuen lasterkari-taldeak. Mozorro onenagatik saria jaso zuten. AIURRI



"Mercury" ere saritu zuten. AIURRI



Izen-ematea, San Juan plazan. AIURRI



Gozatu ederra hartu zuten kuadrillek, urteari amaiera ematen dion lasterketan. AIURRI

Inoiz baino gehiago, korrika eta mozorrotuta

Berrehun kidetik gora atera ziren San Silbestrean. 2019tik egiten ez zen lasterketa herrikoia berreskuratu du Poxta Zahar elkarteak. Lasterketak keinu berezia egin zion Aiurri astekariari

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Amaiera biribila eman zioten urteari Urnietan. Izan ere, korrika ipini zituen Poxta Zahar elkarteak herritarrek, San Silbestre lasterketa herrikoiarekin. 2019. urtean egin zen azkenekoz, eta ohitura berreskuratzeko hautua egin zuen elkarteak. Bueltan, erantzun ederra eman zioten herritarrek erronkari: etxeko mozorrorik "erosoena" soinean, 200 korrikalarik baino gehiagok hartu zuten parte hiztorduan.

Arratsaldeko 15:30ean gerturatu ziren parte-hartzaileak San Joan plazara, lasterketa hasten eta amaitzen zen gunera, hain justu ere. Izena eman ondoren,

arratsaldeko 16:00etan, haurren kategoriari ekin zitzaion.

Jarraian, 16:30ean entzun zen irteteko atzera kontaketa "hiru, bi, bat...", eta han abiatu ziren ehunka herritar lasterka, herriari bi itzuli emateko asmoz. Aurpegiak gorri eta arnasestuka ailegatu ziren helmugara asko eta asko, baina, pozik, era berean, ibilbidean, ezagun eta lagun dezente baitziren txaloka eta animoak ematen.

Ayestaranez, Londonen laguntzarekin, egindako oroigarria eskuratu zuten helduen kategoriako lehen sailkatuek. Emakumezkoen mailan, hurrenez hurren: Leire Blanco, Ianire Fernandez eta Lide Lizeaga. Gizo-

nezkoen mailan, hurrenez hurren: Asier Martinez, Peio Martin eta Jon Ramos. Mozorro onenek ere beren aitortza izan zuten: sari bana jaso zuten Freddie Mercury abeslariak jantzi zen korrikalariak eta San Ferminetako entzierroa antzeztu zuten kuadrillek.

Dena dela, gainerakoak ez ziren esku hutsik etxeratu, tokiko merkatarien eskutik osatutako zozketa bat ere izan baitzen korrikalari guztiei begira: Hotel K10, Leandro Belaunzaran harategia, Altuna sagardotegia, Zaldundegi jatetxea, Fagoaga harategia, Iparralde taberna, Rosco urdaiazpikoak, Guria taberna, Muazpi harategia, Fron-

toi taberna, Oianume jatetxea, Gaztelo gozotegia, Labetxo okindegia, Egur taberna eta London akademia. Aiurrik ere parte hartu zuen, Errigorako saskia eman baitzuen partaideen artean zozketatzeko.

Behin korrikalariak dutxa beroa hartuta etorri zen hitzorduaren hirugarren itzulia. Frontoi tabernan bilduta, pintxopozteaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Hala, Urnietari azken itzulia eman zioten, ondoren, tabernaz taberna, musikarekin girotuta.

Ohitura berreskuratu dute

Atzera begira jarrita, zapore gozoz gelditu dira Poxta Zahar elkarteko kideak, urteko azken egunean antolatutakoarekin. Izan ere, eguraldia lagun, makina bat herritar biltzeko aitzakia luzatu zuten antolatzaileek. Nolanahi ere, haien hitzetan, bada zer hobetua: "Antolakuntzan, jende gehiagoren beharra ikusi dugu, eta, aurrerantzean, izen-ematea arintzeko neurriak ezarriko dira".

2019. urtean egin zen, azkenekoz, San Silbestrea. Ondoren,

etena egon zen, pandemiari aurre egiteko neurriak medio eta, gerora, itxialdiak gizarte-bizitzan utzitako arrastoagatik. Halere, hori ez da oztopo izan bi hamarkadako ibilbidea duen elkartearentzat. 2023ko azken eguneko zita berreskuratu dute, eta, aurrera begira ere, lasterketari eusteko asmoa erakutsi dute. Batek baino gehiagok axubetak izango ditu oraindik. Aitzakiarik ez, irakurle, datorren urtean ere armairutik mozorroa ateratzeko!

Poxta Zahar

Lasterkariak,
laguntzaileak,
merkatariak...
ESKERRIK ASKO!
BIBA ZUEK!



AIURRI



AIURRI

Eguberrietako ekitaldien jarraipena

Ez dira gutxi Gabonetan egin diren ekitaldiak, Urnietan. Eta Aiurri astekariaren atal digitalak horren guztiaren berri eman du. Abenduaren 23an Olentzerok eta Mari Domingik Egape ikastolako jolastoki estalian harrera egin zieten haurrei. Urtarrilaren 5ean, aldiz, gauza bera

egin zuten Errege Magoek Udal kiroldegian. Jende gehien batzen den ekitaldien kokapena aldatu zen, eguraldia zela-eta. Gainerakoan, Kirol Galan eta "Tomaxen abenturak" ikuskizunean, jende ugari elkartu zen. Ezin aipatu gabe utzi Kantazaun taldearen ekimena.



AIURRI



AIURRI

Kirol Galako protagonistak

2023an banaka eta taldeka nabarmendu diren herrikideak omendu zituzten Saroben, Gabonetan antolatutako Kirol Galan. Hauexek:

- 1 Maddi Busto (Kulturista).
- 2 Txaro Tomasena (Igerilaria).
- 3 Julen Gabirondo (Herri Kirolak).
- 4 Nerea Arruti (Herri Kirolak).
- 5 UKE, Senior Gizonak (Futbola).
- 6 Imanol Ansa (Erremontea).
- 7 Amets Carrera (Judoa).
- 8 Oier Duran (Judoa).
- 9 Borja Seco (Judoa).
- 10 David Blanco (Judoa).
- 11 Iraitz Oyarbide (Ehiza).
- 12 Urtzi Oyarbide (Ehiza).
- 13 Lazaro Oyarbide (Ehiza).
- 14 Unai Barrenetxea (Ehiza).
- 15 Carlos Baraona Souto (Ehiza).



AIURRIXXX



Amets Vazquez Roig andoaindarrak, iganderako antolatutako txapelketaren afitza eskuetan duela. AIURRI

Areto futbol txapelketa, ekintzaile gazte talde baten ekimenez

GAKO CUP II. Areto Futbol Txapelketa mistoa antolatu dute iganderako, Arrate pilotalekuan. GAKO enpresak antolatu du txapelketa. Mondragon Unibertsitateko ikasleek antolatu dute, eta tartean da Amets Vazquez Roig andoaindarrak

Xabier Lasa ANDOAIN

GAKO CUP II. Areto Futbol Txapelketan 15 urtetik gorako jokalariek parte hartu ahal izango dute. Talde bakoitzak, 50 euro ordaindu beharko du. Urtarrilaren 14an, igandearekin, egingo da txapelketa. 11:30ean hasi eta 19:30ean bukatuko da. Horretarako, izena ematen duten taldeek sailkatze-faseak jokatu beharko dituzte, eta finalera iristen diren bi taldeek 18:30ean erabakiko dute txapela.

Badira urte batzuk Andoainen ez dela antolatzen antzeko txapelketarik, eta izena ematearen atalean nabari da horren hutsu-

nea, izan ere, ez dira gutxi animatzen ari direnak, Amets Vazquezek adierazi duenez. “Nahiko ondo doa inskripzioa. Oraingoz izena eman dutenen artean, gehienak txapelketaren gosez dauden herriko zenbait talde dira, eta horiekin batera, Errenterian orain hilabete bat antolatu genuen GAKO CUP I. Txapelketan parte hartu zuten taldeak. Denetarik taldeak espero ditugu hurrengo egunetan ere”.

Txapelketa jokatzeko den bitartean, Arrate pilotalekuko plazan tabernatxoak ipiniko dute antolatzaileek, eta bertan edariak eta pintxoak topatu ahal izango

dituzte bertaratzen direnek, Amets Vazquezek gogoratu duenez.

Vazquezek eskerrak eman nahi dizkie, batetik Andoaingo Udalarari jarritako erraztasun guztiengatik, eta, bestetik, “herriko hainbat merkatariei babesle izateko erakutsi duten jarreragatik. Lehenbiziko entzunaldian harrigarria egiten den kontua da gure enpresarena, gazteek sortu izana eta abar, eta horrexegatik, bereziki nabarmentzekoa da guztiak ere gurekin jarri duten konfiantza”.

GAKO enpresa antolatzailea Mondragon Unibertsitatean Li-



Lidergo Ekintzailean eta Berrikuntzan Graduko ikasle-taldea. VAZQUEZ

dergo Ekintzailean eta Berrikuntzan Graduko (LEINN) ikasleek osatzen dute. Vazquezek azaldu dizkigu lehen entzunaldian bitxia egiten zaigun enpresaren inguruko xehetasunak.

“Mondragon unibertsitateko 13 ikasleek osatzen dugu GAKO enpresa. Lidergo Ekintzailean eta Berrikuntzan Gradua (LEINN) ikasten hasi gara aurten, eta, ikasturtean, horixe da gure eginkizun nagusia: enpresa kudeatzea legeek agintzen duten baldintza guztiak betez, gizartearen onurarako bideratuta dauden ekitaldiak antolatzeko xedez. Hamairu ikasleei dago-kigu aurrera eramatea bururatzeko zaizkigun ekimenak. Bide-lagun, soilik bi profesional dauzkagu: lege-aholkularia eta coachinga. Egia esan, gradua osatzen duten lau ikasturteetan mugituko gara era horretan. Diru irabazi asmorik gabeko ekimena da gurea, eta enpresa disolbatu eta dirurik balego gizarte-elkartaren baten esku uztea du asmoa lantaldeak”.

Lantaldeak oso barneratua dauka gizarte onuraren ideia nondik bideratu behar duen, Vazquezek ziurtatu duenez. “Argi daukagu gazteek sozializatzeko premia daukagula, aisialdia elkarrekin gozatu beharra daukagula, eta kultur nahiz kirol arloetako ekitaldiek xede hori erraztu dezaketela. Are gehiago pandemiaren esperientzia bizi eta gero; izan ere, bakartzeko joera utzi digu gazteoi, edo behintzat halakoxeko pertzepzioa eta gogoeta partekatzen ditugu lantaldeko kideok”.

Bi ekimen burutu ditu GAKO enpresak, orain arte: “lehenbizi, Berlinen festa bat antolatu genuen diskoteka batean; ondoren, Errenterian areto futbol txapelketari ekin genion. Eta hirugarrena, Andoaingo txapelketa izango da”.

Aldaketarako eta eragin sozialerako gazteak

LEINN ikasketetan murgiltzeko, hona zer ezaugarri edukitzea gomendatzen duen Mondragon Unibertsitateak: “Aurkikuntza eta eraldaketa pertsonalerako” edota “berrikuntzaren ibilbidean murgiltzeko” prest dagoen pertsona, eta baita ere “aldaketarako eta eragin sozialerako gaitasuna daukan herritar global bihurtzeko” prest dagoena. Amets Vazquezek adierazi du lantaldeko kideek filosofia horrekin kontziente izanda ekin ziotela ikasketari lehenbiziko egunetik, eta pozik daudela orain arte urratu duten bidearekin. “Hainbat trebetasun ari gara lantzen: proiektuak kudeatzea, taldeak gidatzea, plangintza-teknikak diseinatzea, erabakiak hartzea, burokrazia ofizialean beldurrik gabe ibiltzea... Mundu berri bat ireki zaigu, eta bertan nola moldatu ari gara lantzen. Gizakiok ditugun potentzialak garatzen ari gara, azken batean”.

URTARRILAREN 12AN IZANGO DA TXAPELKETAN IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA



AIURRI

Suediara joango dira irabazleak

Argazkian, pozaren pozez negarrez ageri den jokalaria Zarautz KE taldeko jokalaria da. Ez da txikia lortu duten saria. Udan, Suediako lurretan jokatuko den Partillecup txapelketara joateko aukera txartela eskuratu zuten, abenduaren 30ean jokatu zen finalean. Basauri iritsi zen finalera. Leizaran eskubaloia taldeak lan handia egin du txapelketa antolatzen.



AIURRI

Hamarretik hamar lortu nahi dituzte

Representaciones Justino - Ganbara taldea junior mailako partaidetza ligan ari da. Sei taldeko ligaxkan, jokatuko dituzten bederatzitik partidak irabazi ditu. Asteburuan jokatuko dute azkena, eta 10/10 partziala lortzera aterako dira.

- Urtarrilak 13, larunbata.
- 16:00, Benta Berri.



AIURRI

Urnieta-Lengokoak, igandean, 12:00tan

Gizonezkoen Gorengo mailako taldea berriro murgildu da lehiaketan, eta sailkapenaren atzetik ihes egin ahal izateko partida garrantzitsua du aurretik. Lengokoak taldea atzetik du sailkapenean, eta Urnietak irabaziz gero aurkari zuzena atzean utziko luke. Zaletuen animoak eskertuko dituzte gorritxoek.

Jubenilak, biak Urnietan

Gorengo mailan, Urnieta San Marcial Bren aurka arituko da larunbatean, 15:30ean hasita. Urnieta B taldeak, bestalde, Danenaren aurka neurtuko ditu indarrak 15:30ean hasita.

Euskaldunako jubencil mailakoak, Ubitarten

Jubenilen 1. mailan Euskalduna C taldea Hernani C taldearen aurka ariko da, arratsaldeko 15:30ean hasita. Sailkapenean, hurrenez hurren, 2. eta 3. postuan sailkatuta daude bi taldeak. Bi ordu beranduago, 17:30ean, Oho-rezko Mailako Euskalduna Urolaren aurka ariko da. 14 jardunaldi eta gero, bi taldeek puntu kopuru berdina bildu dute: 20. Sailkapenean, 8. eta 9. postuan daude, hurrenez hurren.

Saskibaloia, larunbat goizean, Allurralden

Infantil mailako neskek, lehenik, 09:00tan: Plastigaur-Ostadar. 10:30ean, berriz, jubencil mailakoak: Ganbara-Easo.



ORIAMENDI

Goikoetxea, txapeldun

Goikoetxea V-Aiestaran Erremonteko Bigarren Mailako txapeldun berriak dira. 2-1 irabazi zuten Irazu-Apezetxea bikotearen aurkako finala (15-11, 13-15 eta 8-7). Lau erremontisten arteko partida bikaina izan zen. Ez zuten amore eman eta laurek dena eman zuten amaierara arte. Gorriek partidaren gidaritzat hartu zuten, baina urdinek euren aukerak izan zituzten.



ORIAMENDI



Urnietako
udala

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 12

ANDOAIN Erakusketa

Jon Juarez ilustratzailea.
18:30, irekiera ekitaldia. *Bastero.*

ANDOAIN Antzerkia

Esnearen kolorekoa, Tanttaka konpainiaren eskutik.
20:00, *Bastero.*

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketan izena emateko epea zabalik dago.
Oinarriak: Urnieta.eus.

ANDOAIN Matrikulazioa

Galardi Udal Haurreskolaren 2023-2024 ikasturteko azken matrikula epea zabalik dago. Izen-ematea eta argibideak Basteron.
Azken eguna: Urtarrilak 20.

LARUNBATA 13

ANDOAIN Tailerra

Robotika tailerra Andoaingo eta inguruko herrietako pertsonentzat izango da, bereziki txikienentzat eta familientzat. La Salle Berropek antolatuta.
11:00-13:00, *Bastero.*

IGANDEA 14

URNIETA Antzerkia

"Postdatarik gabeko gutunak". Nerea Ariznabarreta eta Kepa Errasti aktoreen parte-hartzearekin.
19:00, *Sarobe.*

**ANDOAIN Inauterietako egitaraua zehazteko bilera**

Gabonetako ospakizunak amaitu berritan, herri eragile askok hitzordu berria jomugan dute: Inauteriak. Otsailaren 8an Ostegun Gizona ospatuko da, eta Andoaingo eta Urnietako inauteri-festa nagusia otsailaren 10ean izango da. *Urtarrilak 15, astelehena. 19:00, Bastero Kulturgunea.*

ASTELEHENA 15

ANDOAIN KORRIKA

Bilera irekia da eta herriko euskaltzaleak gonbidatuta daude bertara.
18:30, *Andoaingo AEK euskaltegia.*

LARUNBATA 20

ANDOAIN Haur ikuskizuna

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berriena, "Ez gara jaitsiko" izenburukoa.
16:30, 19:00. *Bastero.*

IGANDEA 21

URNIETA Antzerkia

"Laika" haur antzerkia. Xirriquiteula konpainiaren eskutik.
17:30, *Sarobe.*

IGANDEA 28

ANDOAIN Antzerkia

"Anbotoko Mari" antzerkia, bideo-animazioa, interakzioa eta musika biltzen dituen antzezlan multimedia da.
12:00, *Bastero.*

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Anatomía de una caída**


Lar, 13. 19:30, 22:00.
Ig, 14. 19:30.
Astl, 15. 19:30, 22:00.

Migrazioa

Lar, 13. 17:00.
Ig, 14. 17:00.

Los que se quedan

Ig, 21. 19:30.
Astl, 22. 19:30, 22:00.



SINOPSIS

**Anatomía de una caída**

Zuzendaria: Simon Beaufils. **Aktoreak:** Sandra Huller, Samuel Theis, Milo Machado Graner, Swann Arlaus, Jehnn Beth...
Herrialdea: Frantzia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Thrillerra, drama. **Iraupena:** 150 min.

Bogan dagoen filma da

Sandra, idazle alemaniarra, Samuel senarrarekin eta Daniel seme itsuarekin bizi da Frantziako Alpeetako txalet batean. Samuel egoera misterioetsuan hiltzen denean, ikerketak ezin du argitu

suizidioa edo homizidioa den. Sandra atxilotu eta epaitu egiten dute hilketagatik, eta prozesuak bere harreman iskanbilatsua eta nortasun anbiguoak jartzen ditu jomugan.

Martxan da Oianume eta, laster, gainerako sagardotegiak

Andoaingo eta Urnietako sagardotegiak txotx garai berrirako prest daude

Erredakzioa ANDOAIN

Sagardozale peto-petoak dagoneko egin ditu planak, eta txotx garai berriaz gozatu nahi duten gainerakoei komeni zaie garaiz ibiltzea. Izan ere, asteburuetakotortduetarako mahai gehienak

hartuta daude. Bereziki, bazkariak du arrakasta gehien. Sagardozale elkartearen *sagardoa.eus* webguneak internet bidez tokia hartzeko garapen handia izan du, eta hori da erreserbak egiteko modurik eraginkorrena.

Bestea, gertuko eta ezaguna den sagardogileari zuzenean deituta. Udalerriko sei sagardotegiak prest daude txotx garai berriari heltzeko.

Irekiera-datak Urnieta

- Oianume. Dagoeneko zabalik.
- Elutxeta. Urtarrilak 20.
- Altuna. Urtarrilak 24.
- Eula. Urtarrilak 26.
- Andoain**
- Gaztañaga. Urtarrilak 19.
- Mizpiradi. Urtarrilak 19.



Txuleta, Oianume sagardotegian ateratako argazkian. OIANUME



Kepa Errasti Sarobeko oholtzara igoko da, igande honetan. AIURRI

Antzerki-eskaintza bikoitza, Saroben, datozen egunotan

Kultur eskaintza zabala prestatu du, 2024 urteari begira, Sarobek, bere sorreraren 30. urteurrenean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
 “Antzerkiz josita” dator urtarila Sarobe arte eszenikoaren gunean. Urtea hasi bezain pronto ekin zion eskualdeko erreferentziazko kultur guneak bere jardunari. Hala, askotariko eskaintzak izango dira aurrean bertan, adin eta gustu guztiei begira. Tomaxek eta Muxik, esaterako, Saroben hasi zuten beren pailazo-ibilbidearen azken urtea, “Azken festa” emanaldi bereziarekin. Bide beretik, egoitza artistiko-teknikoa egin du berriki Txalo antzerki konpainiak Saroben, joan den asteazkenean aurrestrenatutako “Almazenean” antzezlan jendaurrean taulartzeko.

“Postdatarik gabeko gutunak”, hilaren 14an

Datozen asteetan, bi proposamen dakartzan Urnietako guneak, kulturazaleei begira: lehenik, geldialdia egingo du Xake Produktzioak konpainiak herrian urtarrilaren 14an, orain gutxi labetik ateratako “Postdatarik gabeko gutunak” obra taulartzeko. Getari Etxegaraireren gidaritzapean, “bakarrizketa lagundu bat” aurkeztuko dute Kepa Errasti eta Nerea Ariznabarreta aktoreek. Igande honetan iritsiko da obra herrira, arratsaldeko 19:00etan. Sarrerek 7 euroko kostura izango dute eta, jada, eskuragarri daude Saroben, baita kultur gunearen webgunean ere. Egunean bertan, irekita egongo da txarteldegia, azken orduan dabilzan horien-

tzat. Eduki az honako hau aurreratatu daiteke: Mikelek bost urte eman ditu preso, eta ordu-bete geratzen zaio bizimodu berri bat hasteko. Ordu-bete hau inoiz parez pare ezagutu ez duen igozle misteriosu bati eskainiko dio. Izan ere, azken hilabeteetan gutun misteriosu batzuk jaso ditu bere burua identifikatu ez duen norbaiten partetik.

“Laika”, hilaren 21ean

Euskal Herriatik harago ere jo du aurrean arte eszenikoaren gunearen begiradak, urtarrilaren 21ean, Xirriquitela Teatre Kataluniako antzerki-konpainia izango baita Urnietan, arratsaldeko 17:30etik aurrera “Laika” obrarekin. 1957. urtera atzera salto egiteko gonbita luzatzen du ikuskizunak, Laika txakur ezagunarekin Sputnik 2 espaziontzian sartu eta Lurraren bueltako orbitan ibiltzeko. Lau urtetik gorakoei zuzendutako emanaldia da, eta 3 euroko kostua izango du. Kultur gunean gerturatuta edo webgunean sartuta eskuratu daitezke sarrerak, baita egunean bertan ere, txarteldegian.

Antzezlaren sinopsia honako hau da: 1957 urtea. Mosku. Gerra Hotza eta espaziozko lasterketa. Laika txakurtxoak nola edo hala bizirauten du hiri izoztuan. Ez daki bere zoriak espazioraino eramango duela Sputnik 2.aren barruan; eta gizateariaren historiara pasako dela Lurraren inguruan orbitan ibilitako lehen izaki bizidun legez.



KORRIKA euskararen aldeko hitzordu nagusia izango da 2024an. AIURRI

Bi aldiz igaroko da KORRIKA Urnietatik

Urnietan barrena martxoaren 19an eta 23an igaroko da. Andoainen, berriz, 23ko arratsaldean

Alba Cabrera Jauregi URNIETA
 Beroketa-lanetan hasi beharrean zaude, irakurle, martxoaren 14tik 24ra KORRIKA igaroko baita Euskal Herriko zazpi probintzietan barrena, baita Urnietan ere, eta zein modutan, gainera! Bi aldiz igaroko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia herritik. Bai, bai, ongi irakurri duzu: lehen aldiz, martxoaren 19an, asteartearrekin, jasoko dute urnietarrek lekukoa. Hernanitik etorriko da, Oztaran aldetik, 21:38tan, zehatz mehatz, eta, herriko kaleetan barrena ibili ondoren, Lasarte-Oriaranzko bidea hartuko du “Harro Herri” lemapean, Kostegi parean.

Handik egun batzuetara sartuko da berriro eskualdean lasterketa, hain justu ere, martxoaren 23an. Kasu honetan, andoaindarrak izango dira protagonista, lehenik: Adunatik iritsiko zaie euskararen aldeko aldarrikape-

na, arratsaldeko 15:57tan. Ohiturak agindu bezala, ongi-etorri beroa emango diote herriko euskaltzaleek lasterketari, ospakizun-giroan murgilduta. Behin gorputza berotuta, urnietarren txanda izango da, bigarrenegoz. 16:42ean zeharkatuko dituzte herriko kaleak hizkuntzaren aldeko korrikalariak: San Juan, Aranzubi, Idiazabal... Hernanitik igarota, Donostiaranzko bidea hartuko du lekukoak, biharamunean, hamaika eguneko erronkari Baionan amaiera emateko asmoz.

Andoingo batzordea, martxan

Euskal Herriko zazpi lurraldeak igarotzen ditu KORRIKAK egun gutxiren bueltan, eta hori egingarria izan dadin, ezinbestekoak dira tokian tokiko KORRIKA Batzordeak. Andoingoa hilaren 15ean bilduko da euskaltegian, arratsaldeko 18:30ean.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Maren!
 Etxeko txikiak 3 urte bete ditu. Zorionak bihotza Oihan, aitaxo eta amatxoren partez!

ANDOAIN
Elene Idigoras Alfageme
 Zorionak Elene! 16 urte jada... Goza dezazula eguna! Muxu pila etxekoan partez.



ANDOAIN
Miren Ugartemendia
 Urtarrilaren 19an, gure etxeko txikiak dagoeneko 5 urte beteko ditu. Zorionak!!!

ANDOAIN
Zorionak Eukene
 Eukene, urtarrilaren 10ean 14 urte beteko dituzu, egun polita igaro dezazula! Asko maite zaitugu! Etxekoak.



ANDOAIN
Aratz eta Eneko Berrueta
 Zorionak bikote! Aratzek urtarrilaren 11ean 4 urtetxo eta Enekok urtarrilaren 13an 42 urte beteko dituzte! Etxekoan partez ondo pasa eguna eta muxuak.

ANDOAIN
Ongi etorri Liher Muñoz De Jesus
 Urtarrilaren 2an, jai da Liher, familiaren gozamenerako. Muxu handiak aitaxo eta amatxorentzako.

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Urtarrilak 22, astelehena. URNIETA
 16:30-20:30.
 Plazido Muxika.



MERKATU TXIKIA

ENPLEGUA

Bi mutilen zaintzailea behar dugu. Astelehenetik ostiralera 12:20etatik 14:30etara 11 eta 13 urteko bi mutilen bazkariko gestioan laguntzeko: **650 34 11 08.**

andoaINDARRA
euskaraz

PROTAGONISTA



Ines Medina eta Mailu Arruti, Andoaingo Kale Nagusian, herrian geroz eta ezagunagoak bilakatzen ari diren zenbait panpinekin. AIURRI

Euskal tradizioko panpinen agerpena

Ines Medinak eta Mailu Arrutik urteak daramate euskal ohituretan oinarritutako panpinak nonahi zabaltzen. Aurrez-aurreko eta eskuz-eskuko ekimena egin dute, eta dagoeneko ikusgai daude erakusleho askotan

zait hainbeste kostatzen. Materiala dena, edo ia, birziklatua erabiltzen dut: beirazko botila, oihalak, *eva goma*...”

Pertsonajeak ugaritzen

Olentzeroren eta Mari Domingiren panpinekin ekin zioten ekimenari. Eta ugaritzen joan dira pertsonaiak: Axeri dantzaria, Axeri puska-biltzailea, Ituren eta Zubietako joaldunak, arrantzalea, arrantzarako saregilea, San Ferminetako korrikalaria... Gau Beltzaren jaia darabilte burutik kendu ezinik une honetan, ea hortik ere zeintzuk diren panpinen bildumara erantsi litezkeen pertsonajeak.

Andoaingo irakurle asko jabetuko zen honezkero, herriko hainbat saltokitan, tabernatan, kutxatan... beren erakuslehoetan edo barruko apaletan nola dauden ikusgarri goian aipatutako zenbait panpina. Atez ate egindako lanaren emaitza da hori, Medinak gogoratzen duen bezala. “Bertako saltzaile eta langileengana zuzentzen naiz, zein den asmoa azaldu eta panpinak eskaintzen dizkiet, musutruk. Batzuekin badaukat konfiantza, beste batzuekin ez hainbeste, baina berdin zait, denekin berdin jokatu ohi dut”.

Non atea gurutzatu, han harrera ezin hobea egin izan diotela beti baieztatu du Medinak. “Harridura planta jartzen dute lehenbizi, baina, berehala, egundoko ilusioa egiten die eskaintzak; kuriosoak, politikak, atseginak egiten zaizkie figurak, eta normalki, beren bezeroek ikusteko moduko lekuren batean jartzen dituzte. Pozgarria da panpinek daukaten harrera eta arrakasta!”.

Dagoeneko, zenbat banatu ote dituzten galdetuta, kontuak egiten hasi, eta 300etik gora ateratzen zaizkie. Baina argi daukate ekimenak segida izan behar duela.

Basterotik beherako kale eta plazetan kokatzen diren saltokietan banatu dira gehienbat. “Eremu horretan ibili ohi naiz bezero gisa normalki, baina Basterotik gorakoetan ere ibilia naiz, eta zenbait tokitan (Stop liburudenda, Elizondo, Xarma, Keinu, Xare...) zabaldua daude. Gehiagoetara iritsiko gara, goiz ala berandu”.

Xabier Lasa ANDOAIN

Mailu Arrutik azaldu du non duen jatorria Andoaingo merkatalgune eta eraikin publikoetako erakusleho askotara zabalduetako ekimenak: “Behin, biok hizketan partekatu genuen hausnarketa izan zen leku publikoetan-eta gehiegizko presentzia zeukatela geure-geureak ez ziren pertsonajeek, euskal kulturaren sustrairik ez zutenek, alegia. Errealitate inbaditzaile horri aurre egingo zion eta geurea aldarrikatuko zuen “ekin-tzaren” bat egin behar genuela erabaki genuen, eta hortik jaio zen panpinen ideia”.

Ines Medina da panpinen egilea. Jostuna izan zen ogibidez erretiroa hartu zuen arte, eta egun, denbora libreetan eta go-go datorkionean, jantzien gaineko eskaera batzuei heltzen die, betidanik izan baitu gogoko joskintza. “Panpinak egiteak ez